

Bilbon, 1997ko ekainaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltainburua
 E. Knörr, buruordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 P. Charritton,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 X. Kintana,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 B. Oihartzabal,
 Tx. Peillen,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 A. Urrutia,
 eta L. Villasante,

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan, 1997ko ekainaren 27an, goizeko 10ak eta laurdenetan, eman zaió hasiera Euskaltzaindiaren hileroko batzarriari. Ezkerraldeko zutabeen aipatzen diren kideak bildu dira. Ezin etorria adierazi dute honako kide hauek: M. Azkaratek eta P. Ondarrak.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiriari inork ez dio oharrik egin, eta, horrenbestez, ontzat eman da.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuaren hasierako hitzak X. Kintana zoriontzeko izan dira, Georgiako Nazio Akademiako ohorezko kide izendatu berri baitute. Xabier Kintanak zorionak ezezik, beste euskaltzainen txaloak ere jaso ditu.

1. Hizkuntza arauak:

1.1. Exonomastika: "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena" onartzea.

Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza eta Gidor Bilbao jaunei eman die hitza proposamena aurkez dezaten. Aurreko bileran aurkeztutako proposamenari egindako aldaketak azaldu dituzte. Proposamena konplexua da, tradizio asko dira eta desberdinak. Horregatik, gai hauek euskararen normalkuntzan nahiko eztabaida sortu dute. Aurkezten den zerrendak ba omen ditu arazoak. Zergatik ageri dira izen batzuk, adibidez, eta beste batzuk ez. Bestalde, izenak osorik eman ala ez, arazo izan liteke: *Ciceron* ala *Marco Tulio Ciceron*, adibidez? Bestalde, *Marko*, *Luzio* eta antzekoak ere kanpoan utzi dira.

Bestalde, proposameneko irizpideei hertsiki jarraituz, ondorio harrigarri samarrak lortzen dira. Adibidez, *Agamemnon*, 'm' eta guzti ateratzen da. Edo *Ulixes*, 'x'-rekin. Horregatik, horrelakoak nahi ez badira, bigarren iragazkiren bat ezarri beharko litzateke horrelakoak zerrendatik kanpo uzteko.

B. Oihartzabalek hartu du ondoren hitza eta Euskara Batuko batzordearen irizpidea gogorarazi du, hots: orokorra litzatekeen legea formulatu beharko litzateke lehenbizi,

zeinen arabera emango lirатеkeen latin eta grekozko pertsona izenak. Honi, maiztasun handia duten eta erabileraren poderioz euskarara egokituak izan diren izenen zerrenda mugatu bat erantsi beharko litzaioke. Hain zuzen, aurkeztu den zerrenda itxia izanda ere, zabalegia irizten dio B. Oihartzabalek.

A. Urrutiak legelarien izenak falta direla somatzen du. Ibon Sarasolak, berriz, zerrenda honek, zenbait izenen kasuan behintzat, jende arruntari kultura orokor zabala eskatzen diola esan du.

Bateko eta besteko iritziak eman dituzte zenbait euskaltzainek. Azken batean, badiudi eskatzen dena zerrenda bakar bat egitea dela. Alegia, alde batetik irizpide orokorrak eman behar dira, edozein izenentzat aplikagarri lirатеkeenak eta honekin batera, irizpide horien aplikazioaren emaitza gisa nahiz euskarara egokitetik sortu diren izenekin zerrenda bakar bat egin behar da.

Forma baten ordaina ematen denean, alboan beste hizkuntzetan gauzak nola diren esatea komeni dela ere aipatu da. Erabakia hartzerakoan lagungarri izango litzateke hau. Bestalde, zenbait arlo berezitako (lege munduko, medikuntzako, eta abarretako) izenetan, delako izena zerrendan aurkitzen ez bada irizpide orokorrei egingo zaie jaramon.

Nolanahi ere, irizpide horiek berformulatuko ditu batzordeak eta eskatutako zerrenda bakarra ere hurrengo bilerara ekarriko. Hortaz, hurrengo bileran hartuko da izen hauei buruzko erabakia.

1.2.1. *Hiztegi batua*: **gogobete-hautsarazi** zerrenda onartzea.

Gaurko zerrendako hitzak eztabaidatu aurretik, aurreko batzarrean zintzilik utzitako zenbait hitz ekarri dira mahaira.

Ontzi/untzi delako auziaz I. Sarasolak esan du euskaldunek historian ez dituztela bereizi sukaldeko tresna den ontzia eta uretan ibiltzen diren ontziak. Bereizketa azken garai hauetakoa dela. Egia dela azken urteetako usadioan oinarri hartuta nolabaiteko presiopean jar daitekeela Euskaltzaindia, bereizketa egitera bultzatuz. Lehen ere antzeko precedenteak izan direla (*hauk/hauek*, adibidez) baina gauzak azken batean gaudituz direla. Literatur testuetan (A. Lertxundirenetan edo K. Eizagirrenetan, adibidez) ez da bereizketarik egiten. Eskoletako testu liburuetan bereizketa egiten bada ere, gehiago baliu bide dute literatur testuek eta hauei eman behar zaiela lehentasuna. Horrenbestez, batzordea, kide bat izan ezik, bereizketarik ez egitearen aldeko azaltzen da.

X. Kintana jaunak bere kontrako iritzia azaldu du eta argudioak eskaini ahoz eta idatziz. *Ukitu/hunkitu* edo *itxi/hertsi* bezalako fenomenoaren pareko omen litzateke *ontzi/untzi* bereizketa.

Beste zenbait euskaltzainek ere parte hartu dute eztabaidan. Dena den, eztabaida zaharra eta ezaguna denez eta alde bateko eta besteko arrazoiak ere berriak ez direnez, botoetara eramaten da hautua. Forma bakarraren alde, 11 boto. Bi forma bereiztearen alde, 5 boto eta zuriz, boto bakarra. Beraz, forma bakarra ematea onartu da.

Ondoren, forma hori *o*-duna ala *u*-duna izan behar duen botatu da. Hamaika boto izan dira *ontzi* formaren alde, bat ere ez *untzi*-ren alde eta hiru boto zuri. Horrenbestez, *ontzi* forma bakarra erabaki da.

Inarra/ginarra eztabaida izan da ondoren. Lekukotasunak kontuan harturik, *ginarra* forma proposatzen da, *-a* organiko eta guzti. Hala onartu da.

Zerrendari dagokionez, E. Knörrek eta Tx. Peillenek aurkeztu dituzte oharrak.

E. Knörren oharretatik batzordeak honako hauek eman ditu ontzat: *gogoetatu*-ren sarreran adibide bat ezartzea; *gora* izenondo ere badela; *gotzain*-en ingurukoak ere onartu dira, *apezpiku* eta gainerako eratorrien baliokidetzat emanaz. Hala ere, *gotzaindu* hitza zerrendatik ezabatzea proposatzen du batzordeak; *gotzaingo*, berriz, *apezpiku* hitza-*ren* familiako ordainik gabe uztea. *Greko*, *greziar*, *greziera* sartzea onartu da. *Haina* sarreran adibide hau sartzea onartu da: 'nor ere etorriko baita, haina ene laguna da'. Gainerako oharrak ez dira ontzat eman: kasu batzuetan zerrendan esaten dena aski delakoan eta sarrera berriak proposatzen direnean bigarren pasaldian jasotzekoak direlakoan. Horrela onartu da.

Peillen jaunaren oharretatik honako hauek onartu ditu batzordeak eta euskaltzainek ere bai: *gogoramen* sartzea; *gol* hitza sartzea. Orobat, *gontz* hitza, honako ohar honekin: Ip. pl. 'atearen erroak'. Sartzea onartu da, halaber, *gotortasun*, *granito*, *hankabiko*, *harrrate* 'haitzen arteko igarobidea'. Gainerakoak bigarren pasaldirako utzi dira.

Bestalde, *gorriño* hitzaren sarrera zuzendu da. Honela: *gorriño* 'gorrixka'. *Gorritzta* ezarriko da, bestalde, zerrendan ageri den *gorrixta*-ren ordez.

Gogoeta-ren kasuan, *gogoeta egon* azpisarrera ere sartzea onartu da.

Gorrina/gorrin/gorni hitzen inguruan izan da ondoren eztabaida. *Gorrina* forma hobetsi dute euskaltzainek, hitz honek bi adiera dituelarik: a) 'elgorria' eta b) 'landareen gaitza'.

Satrustegi jaunaren proposamenez, *guraskide* hitza sartzea onartu da, honako adiera honekin 'ezkonlagunen gurasoak elkarrekiko'.

Eranskide hitza ere proposatu du baina hau bigarren pasaldirako egokiago ikusi da. Modu berean, A. Urrutiak *hainbanatu* eta *goitapen* hitz berezituak aipatu ditu. Hauek ere bigarren pasaldirako utzi dira.

Ondoren, *gohaindu/gogaindu*-ren inguruan izan da eztabaida. Bai E. Knörrek, bai Tx. Peillenek, *gogaindu* forma hobesten dute. Hala ere, lekukotasunen aurrean, *gohaindu* formaren alde lerratzen da batzordea. Euskaltzainek ere hala onartzen dute, Ipar. dela adieraziz eta *gogaitu* -ren baliokide.

Golf hitza dela eta, Charritton jaunak honen ordez *kali joko* hitza proposatzen du. Euskaltzainek ez dute ikusten arrazoirik *golf* hitza baztertzeke. Horregatik, bere sarrera izango du, ondoan *kali jokoa* dela emango da aditzera.

Golko/kolko hitz parearen aurrean ere eztabaida izan da. Alde batetik, ea doblete gisa gorde behar ote den ala ez. Forma bakarra onartzekotan, zein litzatekeen erabaki beharko litzateke. Azkenean, hamabi boto atera ditu bi formak gordetzearen aldeko jarrrerak. Beraz, *golko* hitza onartu da geografiarako eta *kolko* forma, berriz, besterako. Puntu honetara iritsirik, Kintana jaunak *untzi/ontzi* eztabaidan hartu den erabakiagatik bere desadostasuna eta protesta agerian jartzea eskatu du eta aktan jasorik uztea.

Gorabehera hitza ere eztabaidarako utzia izan zen. Batetik, marraren erabileraz Euskaltzaindiak emana duen araua hartu beharko litzateke kontuan. Baina hitz hori izendua dagoenez eta hala erabiltzen denez, marrarik gabe eta baturik idaztearen aldeko agertu da zenbait. Hala onartu da. *Gutxi gorabehera* eztabaidatu da ondoren. P. Goe-

nagak hiru osagaiak parekotzat ikusten ditu eta dena hitz bakarrean idaztea proposatzen. Botoetara jo da eta *gutxi gorabehera* idazkerak irabazi du: 13 boto izan ditu proposamen honek. Beraz, forma hori erabaki da. Bestalde, *gorabehera* hitzaren bi erabilerak argitzeo adibide bana ematea erabaki da.

Gorbata ere hizpide izan du Euskaltzaindiak. Hegoaldeko forma dela adierazi beharko litzatekeela esan da. Kontu hau argiegi ez dagoenez, hurrengo bilerarako utzi da *g-* ala *k-* forman idatzi behar ote den erabakitzea.

Gustu/gusto bikoteaz ere erabakia hartu beharra aurkeztu zaio Euskaltzaindiari. Hau ere botoetara eraman da, zenbait arrazoi entzun ondoren, -u forma hobestea proposatzen du E. Knörrek, bizkaieran eta Iparraldeko euskalkietan aurkitzen den era kontuan hartuz. *Gustu* formaren alde agertu dira 18 boto. Forma hau onartu da, hortaz. Bestalde, *gustuko* azpisarreraren ondoan, *gustura* ere sartuko da.

Guti/gutxi forma pareta dela eta, biak ontzat ematea erabaki da. Horrenbestez, zerrendan, *guti*-ren sarreran ageri den oharra aldatu egingo da, 'h.' oharra kenduz.

Hamalaudun sarrera bere horretan uztea erabaki da.

Hatsantu sarreraren ezarriko den ohar bakarra honako hau izango da: 'Ipar. hatsan-ditu.'

Euskaltzainak *harmonium* hitzaren alde agertu dira denak. Hitz honen haritik, *harmonizazio* eta *harmonizatu* ere aipatu dira. Hauei buruzko erabakia hurrengo bileran hartuko da, lekukotasunen arabera. *Hainbatu*-ri buruzkoa ere berdin.

1.2.2. Hautsezin-iguzki zerrenda aurkeztea.

Ohiko legez, hurrengo bileran onartuko den zerrenda banatu da. Oraingoan, hileroko batzarra ere ohi baino lehenago izango denez, oharrak uztailaren 15erako egon behar dute batzordearen esku.

2. 1998ko aurrekontuen aurkezpena.

Euskaltzainburuak 1998ko aurrekontu proiektua aurkeztu du zenbait argitasun emanaz. Hurrengo bileran eztabaidatu eta onartuko da.

3. Eskuartekoak.

3.1. Literatur sari nazionalerako ordezkariak hautatzea.

Aurreko urteetan bezala, Madriletik Euskaltzaindiari egin zaion eskariaren berri izan dute euskaltzainek. Premio Nacional de las Letras Españolas delakorako jadanik J. M. Satrustegi hautatua duenez Euskaltzaindiak, gainerako sarietarako epaimahaikideak dira hautatu beharrekoak. Jadanik Zuzendaritzak egina zuen bilera bat Euskal Idazleen Elkarteko eta Itzultzaileen Elkarteko zenbait pertsonarekin irizpideak batzeko eta sari horien ibilbidea behar bezala finkatzeko. Honako hauek izan dira hautatuak: poesia arlorako, Felipe Juaristi; narraziogintzarako, Karlos Otegi; saiakerarako, J. San Martin;

antzerkigintzarako, Jon Kortazar; haur literaturarako, Arantza Urretabizkaia; eta itzul-pengintza sarirako, Koro Navarro.

4. Azken ordukoak.

Euskaltzainburuak gogorarazi du uztailaren 16an emango zaiola Villasante jaunari Euskadiko Kutxaren eta Eusko Ikaskuntzaren aurtengo 'Euskadi' Saria. Ekitaldia Donostian izango da, Miramar jauregian, arratsaldeko 7.30etan. Euskaltzain guztiak beziki gonbidatuak daudela esan du.

Bestalde, joan den urteko *Oroitidazkiaren* behin-behineko bertsioa, *Euskera* aldizkariaren azken alea eta Joseba Lakarrak prestatu duen *Refranes y Sentencias*-en argitalpen berriaren kopia bana jaso ahalko dutela euskaltzainek bilera amaieran.

J. M. Satrustegi jaunak esan du azkenean Nafarroako Euskararen Aholku batzordea bildu dela. Abian jarria da, hortaz.

Kintana jaunak F. Krutwig-ek Bilboko Bidebarrieta kulturgunean jaso berri duen omenaldia aipatu du azkenik.

Eta ordubiak eta laurdenetan, amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga